

«—LEZO— IZENARI BURUZKO TEORIAK»

Jaizkibel magaleko herri honek duen izenarekin betidanik ohituta gaudenez, gehienok ez dugu inoiz bere esanahiaz pentsatu, baina esan beharra dago egon badaudela bere osakera eta jatorriaz gogoeta egin dutenak. Lezori buruzko bibliografia berrikustea, besterik ez dugu, —LEZO— izenari buruz dauden teoria ezberdinetaz erreparatzeko. Ikus ditzagun bada:

1.- LOPE ISASTIREN TEORIA

XVI. mendeko lezoar historiagile famatu honek idatzi zuen «Compendio historial de Guipuzcoa» izeneko liburu mardulean honela dio:

«La Universidad de Lezo (mi patria) es muy antigua y nombrada, de ochenta y cinco vecinos. Está en un sitio apacible, algo alto, de buenas vistas, cerca del brazo de mar que sube del bocal del Pasage a un lado de la sierra de Jaizquivel. Hizo memoria de ella el Señor Rey D. Alonso el nono en el privilegio que dió a la villa de Fuenterrabía el año 1.203 diciendo, que le daba por vecino a Guillermo de Lazón y sus compañeros: y por tradición se sabe, que este Guillermo fué dueño

y señor de la casa solariega de Lezo-andia, de que tomó nombre el pueblo».

Ikusi ahal dugunez, Lope Isastik pentsatzen zuenez, Lezo herriaren izena bere balizko sortzailea izan zen Guillermo de Lazonen deituratik dator. Litekeena, zergatik ez? baina nire uste apalez oso gauza bitxia, gure Euskal Herri hontan leku izen guztiek beren adierazpen toponimikoa bait daukate. Dena den posibilitate bat dela onartu beharra dago.

2.- JOXE LUIS APERRIBAIREN TEORIA


Bigarren balizko esanahia, urte luzetan herriko apaiza izandako Joxe Luis Aperribairen eskutik datorkigu. Berak esaten zuenez badago Oiarso-Bidasoa bailara bi-

Aldizkari honen 16.-17. orrialdeetan plazaratu zen LEZOI-LEZO bikotasunaren teoria

LEZO

2

SEÑOR QUE ELLOS DE UN ACUERDO Y VOLUNTAD SE HABIAN CONVENIDO E SE UNIAN EN QUE EL DICH O MAESTRO DOMINGO DE JUAN SANZ SORD HAYA DE HACER Y ESCRIBIR LO QUE PESTA DE HACER LA DICHA IGLESIA DE SEÑOR SAN JOAN DE LEZO DENTRO DE SEIS AÑOS CUMPLIDOS PRIMEROS SIGUIENTES DEL DIA DEL OTORGAMIENTO DESTA DICHA ESCRITURA EN AGUANTE POR CANTIA DE M IL Y SEISCIENTOS DUCADOS... Y ASI LO OTORGÓ ANTE EL PRESENTE ESCRITA NO Y TESTES EN ESTA CASA DE VIZCAYE-ANDUEÑA QUE ES PROPIA MIA Y SITA EN ESTE DICHO LUGAR DE LEZO A VEINTE DIAS DEL MES DE DICIEMBRE DEL AÑO DE MIL SEISCIENTOS Y CUARENTA SIENDO TESTES JACINTO DE AGUIRRE NICOLAS DE SANZENA Y JUANES DE AURELA VECINOS DESTA DICHO LUGAR ... EN OCHO DEL MES DE JUNIO DEL AÑO DE 1561 VIÑO LA NUEVA DE LA VUE RTE DE JUANES DE VIZCAYE QUE MURIO EN YOLANDA PRESO... PRIMEROAMENTE SE NOMINO Y ALISTO EL SEÑOR RESIDOR FRANCISCO DE ARRILLAGA POR HABER NAVEGADO POR TAL MARINERO EN DIFERENTES NAUJES QUE HAN SALIDO EN SE RVIDO DE SU NAUJADO AL CORPO Y TAMBIEN EN DISTINTOS QUE HAN SALIDO DE DIEZ Y SEIS AÑOS A ESTA PARTE A LA RESIDENCIA DE CALLENAS Y OTROS PARTES... DE DIEZ HORAS A LAS ONCE DE LA NOCHE DEL EXPRESADO DIA 7 D E ESTE MES LLEGARON A ESTA UNIVERSIDAD DE LEZO VARIOS HOMERES ARMAD OS DE INFANTERIA Y CAVALLERIA DE ESTOS LLAMADOS BRISANTES DE LO QUE I MEDIATAMENTE DI PARTE AL COMANDANTE MILITAR DE LA PLAZA DE LA VILLA DEL PASAGE DON UN RESIDOR Y EL ALBUCEL QUIEN LUGO VIÑO DON SU TROP A PERD EN EL INTERMEDIO QUE ENA DE POCO TIEMPO OUBRIDO HABERME PRIST O DICHA BENTE HANAJA LOS CABALLOS QUE PESTA EN EL PUERTO A LO QUE ME RESISTI MAS SIN EMBAJIO CON LA FUERZA ME USARON A IR CON ELLOS A RECONOCER LAS CASAS EN DONDE HABIA CAVALLERIAS Y RECONOCIDAS NO SE H ALLO NINGUNA POR CONSUENTE TAMPOCO LLEVAVON EN ESTE TIEMPO PISIER ON LOS MISMOS CUARENTA RACIONES SU PAN VINO Y CARNE Y SEIS CAMISAS Y ADESVARANDOLE QUE NO HABIA NI PAN NI CARNE NI CAMISAS SORD SI VIÑO E N LA TABERNA AGUIRRE DON A ELLA Y TAMBIEN EL VINO NECESARIO Y HAYE L E BRAS DE PAN PARA CUBR CONSUENTE PISIERON UNA CAVALLERIA O UN PASAD O PERD NO SE LES UJO NI CAVALLERIA NI HOMER ALGUNO Y EN ESTA FORMA CAVALERON UNA CAVALLERIA DE ELLOS MISMOS Y LLEVAVON EL PAN Y EL VINO HENAJARON A CUYO TIEMPO TIRAVON UN TINO Y SE FUERON LOS REFERIDOS B RISANTES SIN JUDA POR HABER SONTIDO QUE VENIA EL DESTACAMENTO DE DIC HA VILLA DEL PASAGE... GRAN CANTIDAD PEDESTRE DON EL SEÑOR RESIDOR IDO SALIÓ PRISTE A LA SOCIEDAD DE SEÑOR Y PASAVON POR EL CALLEJON QUE HAY ENTRE LAS CASAS DE D J R SALAJERENA Y SEÑORA VIZTA DE INTAKU HANAJETA SORD POR EL DEPOSITO DE AGUAS A PARTIKUENJA PASAVON POR IPANAGUIRRE KASITE Y AGUIRRENA PARA VENIR A LA PLAZA DESUJ A ALZAT E TOMAR EL CAMINO VIEJO A ZURITIO Y LLEGADA A LA META,



koitz osoan oso hitz zabaldua penditza edo ezponda ttikia adierazi nahi duena: «lezo» delakoa. Bere ustez, —lezo— eta —lezo— loturik egon daitezke, edo hobeto esanda —Lezo— lezoitik etorriko litzazuke, urteen poderioz azken —i— hori galdu badu ere.

Hauxe da Lope Isastiren liburua azala. Bertan Lezo herriaren izena bere fundatzailea izan zen Gilermo Lazon-ekoaren abizenetik datorrela defendatzen du.



Aperribairen irtenbideaz baliatuz 1989ko maiatzean, neronek artikulua bat idatzi nuen herriko aldizkaria den «LEZO»-n, bere bigarren zenbakian, «—Lezo— izenari buruzko zenbait datu eta burutazio» izenaz bataiatu nuen. Bertan Aperribairen teoriak mintzatu nintzen luze, baita arrazonamendu geografikoak emanaz ere. Azken finean, Lezo itsaso aurreko lezoia bait da eta hortik letorkioke bere izenaren arrazoiak. Gaintikan kontuan hartzen nuen bailara osoan —lezo— hitzaren parekoa erabiltzen dela erdaraz: —Lezon— edo —Lazon—. Eta pentsatu nuen herriari holako izena emango ziotela, euskaraz «LEZO (I)» eta erdaraz «LAZON» edo «LEZON». Guillermo de Lazon-en abizena, beraz, berari babesean emandako tokiaren izenetik etorriko litzateke, eta ez alderantziz, Lope Isastik bere liburuan defendatu zuen gisa. Dena den azter dezagun orduan aipaturiko artikuluan idatzi nuen:

«Behin gai honi buruz hitzegiten ari ginela, On Joxe Luis Aperribai, herriko apaizak, aipatu zidan honen gainean zuen iritzia. Beraren ustez, Lezo hitza ez omen dator Gilermo Lazonen abizenetik, bailaran ezponda, penditza,... adierazteko erabiltzen den LEZOIA hitz zaharretik baizik. Eta nik, nire buruko labea ondo irekin ondoren, On Joxe Luisi ez zaiola arrazoirik falta sinisterra ailegatu naiz.

Lezo hori bait da, Jaizkibeleetik badia edo portu alderantz jeisten den lezoia haundia, eta ondotxo dakigu danok zer nolako irizpide toponimikoak zerabilzkiten gure arbasoek leku izenak sortzeko orduan. Eta irizpide hauei jarraituz lezoia zena LEZO(I) bihurtu zen».

3.- LUIS MARI MUJIKAREN TEORIA

Hirugarren teoria Luis Mari Mujika hizkuntzalari eta idazle ospetsuaren lumatik datorkigu, 1991. urtean kaleratu zuen Gipuzkoako herrien toponimiari buruzko bilduma aberatsean, zehazkiago Donostialde eta Errenterialdeari eskeinitako liburukian.

Bertan badu Lezori buruzko kapitulu zabal eta mamitsua. Atal honetan eta beste teoriari aipamenen artean, beste honako hau kaleratzen digu: —leze— (barranco) + —oin—= LEZO. Teoria honi jarraituz, Lezo itsasora ematen duen lezean, bere oinetan, eraikitako herria izanen litzateke. Ikus dezagun zer dioen Mujikak:

«—Lezo— herri, sagasti eta lursaila.

Behar bada, arriskutsua hemen —lerzo—

(suciedad), lezoi AN-lez-oy. (trinchera)

eta AN-Arak. (vallado) esanahiak gogoraztea.

Lezoin-en etimologia, ausaz, leze (sima)

eta —oin (pie) izan daiteke. Probableago

ordea, Guillermo Lazon (Guillelmun de Lazon)

fundatzailearen deitura iturritzat hartzea,

jatorri oro gaurkoz ezezaguna delarik».

4.- NIKOLAS ALBIZUREN TEORIA

Laugarren teoria hau lezoar semea den Nikolas Albizu historia lizentziatuaren aldetik plazaratu zaigu. «Lezo 6»an artikulua mamitsu bat idatzi zuen Lezoko sorreraren garai ilunei buruz, eta bertan honako eritzia bota zuen:

«A partir de ahora, voy a introducirme en el desarrollo de la hipótesis. Una vez más, hay que tener en cuenta una serie de elementos, para entender la gestación del núcleo primordial de Lezo:

- 1.- Guillermo de Lazón, el personaje más influyente en el nacimiento de Lezo, parece estar relacionado de forma considerable con el sistema de Lezones.
- 2.- El sistema de lazones o lezones, consiste en un método de desecación que confecciona muros a base de terrenos de tierra con hierba superpuesta que se compactan al contacto con el agua. Además se les deja una compuerta para regular la entrada y salida del mar. De esta forma se lograban tierras para el cultivo a un nivel inferior del mar».

Teoria honen arabera, herriaren izena lan sistema horretatik etorriko litzateke. Eta bere artikulua irakurtzean ikus dezakegun bezala, ez zaio arrazoinamendurik falta.

5.- IMANOL MUJIKAREN TEORIA

Oraingoz nire eskuetara iritsi den azken teoria hau da. «Arbasoen Izkuntza Zaleak» izena duen elkarteko partaidea den Imanol Mujikarena. «Euskaldunon Egunkaria»-n, ekaineko lehenengo astean plazaratu zen elkarte bereko partaide ere den Amal Arzelusen eskutitz baten bitartez. Ikus dezagun:

«Gure errien izenakin burugabekeri asko egin dira.

Besteak beste, auetako bat «Pasai Antxo» da. Bere

benetako izena «Pasai Antxio» da, baiña erderatu

zutenean «Pasajes Ancho» jarri zuten; orain «euzkeratzerakoan» (?)

«Pasai Antxo» jarri dute eta lasai lasai gelditu dira.

Ondoren doakizue gure batzarkide dan (Arbasoen Izkuntza Zaleak Elkartekoa alegia) Mugikatar Imanolek egindako ikerketa. Pasaiko itsas-kolkoaren zati au leku oietako be-aldea da, beerena. Molinao ibayaren ur gezak ur gaziarekin biltzen dira be ortan. Itsas beeranur gaziak antxieta (marisma) uzten zuen agerian. Antxiña, ibaia ta itsas-kolkoa alkartzen ziran lekuan «antxio» izeneko txabola bat omen zan. Euskal izen onen eraketa onelaxe da.

Antxi.... marisma.

Antxieta.... sitio de marismas.

Antxio... lo que está en las marismas.

Orregatik jarri zioten txabolari «Antxio» izena, antxion dagona esan nai dulako. Antxiñako euzkeraren joskeran Antxi izenetik Antxio (antxian dagona) sortzen da. Oria ta Orio izenez ere berdin gertatzen da. (Orio Orian dagona) Leza, Lezo (lezan —barranco— dagona) Inda, Indo (indan —en el sendero— dagona)».

Ikusi dugun bezala bost teoriak nahiko sinesgarriak dira, eta bakoitzak bere pisuzko argudioak dauzka. Dena den, nik baztertuko nuke lehenengoa, Lope Isastirena, ezin bait dut sinistu Gillermo Lazon-en abizenetik etor dakiokela herriari gaur daraman izena. Horrela izatekotan lehenengo kasua izango litzateke Euskal Herri osoan, Eta ez dut uste holakoa izan daitekeenik. Beraz, nik baztertuko nuke betirako posibilitate hau.

Beste lauei dagokienez, esan beharra daukat badaukatela beraien artean loturazko sare ikustezin bat, nik oraingoz interpretatzen ez dakidana. Lau bide ezberdin bai, baina leku berera eramaten dutenak. Nik loturaren bat aurreikusten dut, baina ez dakit esaten non dagoen, ez dut aurkitzen beraien artean egon daiteken zubia. Horregatik, gauzak honela dauden bezala utziko nituzke nik, agian egun hurbil batean jakin ahal izango dugu zein den —Lezo— hitzaren esanahi zehatza. Bitartean itxoin, besterik ezin dugu egin.

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN

Lezo zaharra
Lander
Zurutuzaren
marrazkiaren
arabera

